



Burdin Aroko odisea

Euskal mitologiako jentil erraldoi haiek ikazkinak ziren, errementariak, laborariak; nekazaritza eta industriaren sekretuak ezagutzen zituzten. Eta gizakiak, nola edo hala, hamaika trikimailu eta azpijokorekin, ezagutza haiek bereganatzen saiatzen ziren. Martin Txikik, adibidez, gari-aleak lapurtu zizkiken jentilei, eta horri esker hasi ziren gizakiak nekazaritzan. Jentilak mendietan bizi ziren, eta, denbora pasan, harritzarrak hartu eta bailara batetik bestera jaurtitzen zituzten –jentilarri mordoa dago euskal toponimian–. Harri handiak pilatuz monumentu misterioitsuak ere osatzen zituzten. Kixmi jaio zenean –Jesuskristo, alegia–, euren garaia amaitu zela ikusi eta leize batera salto egin zuten jentilek. Gazteena kanpoan geldituz eta leizea harri handi batekin itxi

Urumeako ibarretik Adarra-Mandoe-
gi menditerrora igo gaitezke, milaka ur-
te dituen mezu horrek planteatzen
duen misterio batera hurbiltzeko. Ze-
harkaldi polita egin daiteke Adarra,
Onddo, Azketa, Leuneta, Abadekurutz
eta Mandoegi gailurretatik, eta bide ho-

Etenetako harrespila eta iruinarriaren ondoan, “2001. A *space odyssey*” pelikula datorkit gogora. Protogipuzkoarrek protonafarren monolitoak deskubritu zituzteneko momentua irudikatzen dut, protonafar aurreratu haien obra harrigarriak gure inteligentzia pizten hasi zireneko unea... •

